

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

Enpresa: Seguros Bilbao, Compañía Anónima de Seguros y Reaseguros

Produktua: **Órbita más conductor**

Hemen erregistratua: Espainia. Aseguru-entitatearen baimen-zenbakia: C0026

Aseguru-produktuari dagokion kontratu aurreko nahiz kontratuko informazio osoa beste dokumentu batzuetan dago, hala nola informazio-oharrean, bai eta aseguru-kontratuaren baldintza orokorretan, baldintza partikularretan eta, hala badagokio, baldintza berezietan ere.

Zertan datza aseguru mota hau? Gidari profesionalen osoko babesean. Asegurudunari gidabaimena kentzen diotenean, dauzkan galera ekonomiko frogatuak konpentsatzera bideratutako kalte-ordainak bermatzen dira hainbat estalduraren bidez, bai eta puntuak berreskuratzeko ikastaroak eta gidariaren jardura profesionalekin erlazionatutako beste zerbitzu eta estaldura batzuk ere.



Zer asegurutzen du?

Kontratugile bakoitzari egokitutako eskaintza bat egiteko aukera ematen du aseguru-produktu honek. Hau da estaldura eta aseguraturako arrisku nagusien laburpena, baldin eta berariaz kontratatzen badira:

- ✓ Hauen ondorioz diru-sarrerak galtzea:
 - ✓ Epai judizial irmo baten ondorioz gidabaimena kentzea, gidabaimenak indarraldia galtzea puntuak galtzeagatik edo arrazoi psikofisikoengatik, eta asegurudunaren gidabaimena aldi baterako kentzea;
 - ✓ ohiko lana gauzatzea eragozten duen aldi baterako ezintasun bat, baldin eta tratamendu mediko bati jarraitzen bazaio eta patologia itzulgarria bada;
 - ✓ Asegurudunaren legezko langabeziagatik ordainketen babesa.
- ✓ Puntuak osoki/partzialki berreskuratzeko ikastaroak egin eta gainditzeagatik gastuak itzultzea, bai eta Gaitasun Profesionalen Ziurtagiria berritzea ere, kontratuan adostutako baldintzen arabera.
- ✓ Babes juridikoa, baldin eta gidabaimena aldi baterako kentzen bada.
- ✓ Zigorren bilaketa eta trafiko-sailaren salaketen aurreko babes administratiboa.
- ✓ Kudeaketa-izapideen inguruko aholkularitza eta informazio juridikoa, eguneko 24 orduetan.
- ✓ Hobariak (asegurudunak egindako ordainketak) itzultzea heriotzaren edo erretiroaren kasuan, kontratuan adostutako baldintzen arabera.



Zer ez du asegurutzen?

Kanpo geratzen diren arrisku nagusiak

- ✗ Kontratuaren indarraldiaren aurretik ezagunak ziren zigorren ondorio diren zehapen-prozedurengatik kalte-ordainak eta babesa.
- ✗ Epai judizial irmo baten arabera asegurudunak borondatez egin dituen gauzak.
- ✗ Kontratua indarrean jarri aurretik jazotako gaixotasun edo istripuen ondoriozko prestazioak.



Estaldurari dagokionez, murriztapenik dago?

- ! Asegurudunak alkohol-probak eta/edo droga-probak egiteari uko egitearen ondoz gidabaimena aldi baterako kentzea.
- ! Gaixotasun baten ondoriozko arrazoi psikofisikoengatik gidabaimenak indarraldia galtzeak 2 urteko ezaldia du (estaldura erabili ezin den aldia).
- ! 65 urtetik gorako kasuan, arrazoi psikofisikoengatik gidabaimenak indarraldia galtzea.
- ! Administrazioarekiko auzibideko babes juridikoaren kasuan, urteko bi errekurtsoko muga xedatzen da.
- ! Aldi baterako ezintasunaren estaldurak 90 eguneko gehieneko muga du kalte-ordainetarako, eta lehen 30 egunak asegurudunaren kontura izango dira.
- ! Kontratuziotik 6 hil igarotakoan jarriko da indarrean ordainketen babesa, eta kalte-ordainen gehieneko aldia 2 urtekoa izango da.
- ! Babes juridikoko estalduraren gehieneko kapital bermatua 1.000 eurokoa izango da.

- ✓ **Gidari profesional bat bidaltzea, ibilgailuaz** ardura dadin, baldin eta asegurduna ospitaleratu behar bada edo gidabaimena kentzen badiote, eta, Espainian egonik, etxetik 30 km-ra baino gehiagora badago.
- ✓ **Bidaia**ko laguntza, estatu barruan nahiz atzerrian.



Non izango dut estaldura?

- ✓ Aseguru honek Espainiako lurraldea estaltzen du. Hala ere, Nazioarteko Bermea kontrata daiteke; gidabaimena aldi baterako kenteagatik kalte-ordainen estaldura hedatzen du, asegurdunak bere jarduera profesionala gauzatu bitartean Europako edozer estatutan egindako epai edo ebazpen administratibo irmoak ere barnean har ditzan. Kanpoan geratzen dira Espainiatik kanpoko abokatu, prokuradore eta fidantzen gastu guztiak.



Zer betebeharrak daukat?

- Asegurua kontratatzean benetako informazioa eta zehatza ematea, eta, kontratua indarrean dagoen bitartean, arriskuen inguruko aldaketak ahal bezain laster jakinaraztea.
- Aseguruaren kobrantza-jakinarazpena jaso bezain laster ordaintzea aseguruari.
- Ezbehar bat izatekotan (hots, estalduraren eskaera baldintzatzen duen gertaera), hura adieraztea, kolaboratzea eta ondorioak arintzea.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratatzeko unean, eta kontratuan adierazitako ordainketa-metodoaren arabera. Kontratua luzatu egiten bada, herritzearen hasiera-datan. Ordainketa banku-helbideratzearen bidez edo, hala badagokio, kreditu- edo zordunketa-txartel baten bidez egin ahalko da.



Noiz hasten eta amaitzen da estaldura?

Lehen ordainketa egindakoan hasiko da estaldura, eta kontratuan adierazitako data eta orduan amaituko.



Nola ezezta dezaket kontratua?

Idatzizko jakinarazpen bat bidalita aseguru-entitateari, indarrean dagoen aseguru-aldia amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez.